

EIDER MENDOZA LARRAÑAGA
GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSI IZENDATUA
KARGU HARTZE ONDORENGO HITZAK
2023-06-29

Nire lehen hitzak ditut hauek Gipuzkoako Diputatu Nagusi gisa. Eta, labur bada ere, hiru mezu partekatu nahi ditut zuekin eta lurraldeko herritar guztienik: esker oneko mezu bat, konpromiso bat, eta eskaera bat.

Esker ona, benetako ohorea eta ardura delako gipuzkoarron borondatearen ordezkari izatea. Eskerrak eman nahi dizkizuet nire aldamenean zaudeten pertsona guztiei, batzarkide guztiei, alderdikideei eta gizarte osoari.

Esker ona, maila pertsonalean, etxekoei (Mateo, Leire, Mattin, Lander eta Ikerri), aita, ama, Mikel eta Amaiari, ibilbide honetan guztian eman didazuen babesagatik. Eta aittitte eta amamari, beren ereduarekin herri honekiko maitasuna zer den erakutsi zidatelako. Nire lagunei. Lankideei. Maite zaituztet denak. Asko.

Eta esker berezia ere, lurralde honetan eta munduan, mendez-mende, hamarkadaz hamarkada, politikagintzan konprometitu diren emakumeei, eta berdintasunaren alde lan egin duten pertsona guztiei.

Historian lehen aldiz, gipuzkoarron ordezkaritza demokratikoa gorpuzten duen gobernuak emakume bat izango du buru. Emakume hori ni izatea zirkunstantziala da. Mugarri honen atzean dagoen bidea, bere esanahia, ordea, oso balio sakonekoa da. Gorabeherak gorabehera, gizarte bezala aurrera egiten jarraitzen dugula, eta jarraitu behar dugula gogorarazten digulako.

Horregatik, une honetan, gure herrian eta lurraldean politikagintzaren bidea urratu duten emakumeen lana goraipatu nahiko nuke. Kolore politiko batekoak edo bestekoak izan, alderdi bat edo bestea ordezkatu, gizarte hobe eta justuagoa eraikitzeko asmoarekin politikagintzarako urratsa eman zuten emakumeak, gaur baino askoz ere garai zailagotan.

Hainbat eremutan, azken hamarkadetan, hainbat eta hainbat emakumek funtsezko lana egin dute gure herriaren eta lurraldearen erakundeak eta autogobernua finkatzeko, gure osasuna, hezkuntza eta ongizatea bermatuko zuten politika publikoak garatzeko, eta elkarbizitzan eta kultura politiko demokratikoan aurrera egiteko.

Argi eta garbi azaldu nahi dut emakume horien guztien ispiluari begiratzen diodala, neure egiten ditudala haien balioak, printzipioak eta grina, eta onena emango dudala gipuzkoar guztion ongizatea, aukera eta eskubide berdintasuna bermatzen jarraitzeko. Orain ere, dena dugulako egiteko, eta askatasunaren eta aurrerabidearen aldeko lanak etenik ez duelako.

Emakume aitzindari horiek bezala, nik ere politikagintza duintzen saiatzeko konpromisoa hartzen dut. Ziurgabetasun garaiotan, pertsona, eragile eta sentsibiltate guztiak barne barne hartuko dituen Gipuzkoa eraikitze gogor egingo dut lan. Arlo guztietan, ekonomian, gizartean, generoan, hizkuntza esparruan.... gizarte berdinzaleago bat ehuntzeko.

Eta amaitzeko, hasieran esan dudana bezala, nire hirugarren eta azken mezua eskaera bat izango da. Gustatuko litzaidake legealdi hau erantzukidetasunaren legealdia izatea. Esaldi famatuak dioten moduan, ez da garaia galdetzeko zer egin dezaketen besteek gure alde, baizik eta zer egin dezakegun guztiok Gipuzkoa eta Euskadi proiektu kolektibo bezala indartzeko. Izan herritar, eragile zein arduradun politiko. Denak gara beharrezkoak. Inor ez dago soberan.

Askoz gehiago da batzen gaituena bereizten gaituena baino. Begiratu diezaiozun amankomunean dugu horri, denona den etxea defendatzeko, eta adostasunak eta akordioak lantzeko, eztabaida politiko eraikitzaile eta zentzuzkoaren alde eginez, eta oportunismoari atea itxita.

Aldamenean izango zaituztedalakoa, norabide horretan gogor lanean aurkituko nauzue.

Bihar goizetik aurrera, beraz, lana, lana eta lana.

Mila esker.
